

Argitarabakoan liburutegia

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITARA-TU gabe (eznik) eskuizkriburen bat baldin badu norbaitek, *Jakin*-era bidaltzeko, esan nuen

ETBn, aurriko astean, Lagun batek behintzat entzun zuen, eta komentatu zidan: lekurik ba al duzue, etorriko zaizuen lan pila gordetzeko?

Ez du asmatu, eskuizkribu bat bakarra ere ez bait da agertu *Jakin*-eko bulegoetan. Zer esan nahi du honek? Zein autorek ez duela entzun? Argitaratu ezinoko euskal eskuizkriburik ez dagoela egon? Auskalo!

Euskaraz erraz publikatzen dela, diote batzuk, eta idazleen apaletan edota argitaratzaileen kaxoietan ez dagoela originalik, kalitate minimo bat duenik behintzat.

Beste batzuei, aldiz, mila aldiz entzun diet gauza bera: eskuizkribu asko dabilela argitaratzailerik batetik bestera. Eta hori ez omen da kalitatearen kontua, ez, baizik eta liburu-motarena. Literatur liburu edota ikasketarako funtzionala ez denak, jai omen du. Goseak hilko omen da azterketak, tesiak edo saiakerak argitaratzeraz eman nahi dituen idazlea.

Hamar urte zahar bada eztabaida hau. Horrelajarraraituko dugu, arik eta zirt edo zart argitu arte. Zer egin argitzeko, ordea?

HABE aldizkariak publikatu zuen albiste batek piztu zidan argia: Ba omen da Estatu Batuetan eskuizkribu eta argitarabako liburuak biltzen dituen liburutegi bat.

Zergatik ez dugu gauza bera egiten? Norik bildu, ordea? Eusko Jaurlaritzak? Argitaratutako ez ditu biltzen, eta argitarabakoak biltzen hasiko da orain!, pentsatu nuen nereki-ko, eta ez zela hori bidea erabaki. Zergatik ez bildu *Jakin* aldizkarian?, pentsatu nuen gero. Toki aproposa dugu horretarako.

Gutxienez bizpahiru abantaila izan ditzake inizatiba honek: batetik, zer dagoen argitaratzailearen jakingo genuke. Eta batez ere, eskuizkribuak kontsultatu nahiko litzukeen izango luke nora jo. Eta zergatik ez, —hirugarren abantaila— argitaratzeraz ere animatuko litzateke argitaratzaile norbait.

Asti-aldia

LONTXO OIHARTZABAL



LANERAKO prestatu gara. Lana zentuz eta erantzukizunez egiteko prestatu gaituzte. Lanari zentzu sakralizatuz

begiratzen diogu; lanean gauzatzen omen da gizaikiaren izakera sakona. Eta bedi horrelaxe!

Baina gaur lana utzita eta gero ere bizitza luzea du itxaropen gizaixo honek. Bere garaian jubilatuta ere beste hamabost/hogei urte bizitzeko. Zer esan aurrez jubilatuta ditzutenak! Eta jubilatuta askok lanak ditu bere asti-aldia-ekin. Aspertu egiten omen da, eta aspertuz gogaitu, eta gogaituz zahartu. Ordu libre gehiegi, nonbait, egunak! Ez dugu ikasi, antza denez, ordu libreaz baliatzen.

Lanerako urteak mugatuz doaz; bizitzeko urteak, alderantziz, luzatuz eta luzatuz; hiru-ogeitabost urteakoa gazte da oraindik gaur egun, eta osasun onekoa gehienetan. Honatz gizaritari eginkizun berri bat nola sortu zaion ustekabeen. Haurtzarorako eta gaztarorako eskolak ditugu. Zahartzarorako ere ikastegiak prestatu behar diren aurkitzen gara: denbora libreaz geuretzat, geure gozamenerako baliatzen ikasi behar dugu. Zenbait ilusio, zenbat asmo geratu ote da geure barrenean, lana egin behar diren zamapean, kanpora loratu gabe! Jubilazio ondoko urte luzeetan barrena gauza daitzke gaztaroen alde batzara utzitako gogo eta nahimen haiek.

Hainbeste urte luze zergitareantzat lan egin duenak irabazia du asti-aldirako 'eskola-zerbitzua'. Gizarte berak zor dio.

Diario 16

Epai eztabaidatua

Aurrikus zitekeen bezala, Auzitegi Gorenak Amedo eta Dominguez buruz emandako epaiak jende gutzia ez gogobetetzaren birtutea izan du. Funtsean epaiatu duen episodio beldurgarri eta penagarriaren ispilu leiala da. Hala ere, Estatu GAL taldearen biktimen erantzule zibik subsidiarioa dela aitorzea joko juridiko harrigarria da, delituak beren egitekoa gauzatzen ari ziren agenteek burutu zituztela onartzen bait da; horrek ez du esan nahi milimetro bat bera ere urrun-go joatea eta, hori Auzitegi Gorenaren arabera, goi buruzagiei inductorre edo kooperatzaile izanaren erantzukizuna egozteko litzateke.

EDITORIALA

EL DIARIO VASCO

Autobidea, suetena eta elkarrizketa


Gero eta gehiago dirudi EAJK eta PSOEK operazio garrantzitsu horren maniohra tarreak paktatu, ETArek indarkeriari inrenbide posiblea aurkitzeko paktatu dituztela, eta somatzen diren desberdintasunek dibortzio estrategikoa baino gehiago isladatzen dute egitekoen banaketa. Sozialistek bidea irekita utzi diete nazionalistek dudu-mudako konponbideari ekiteko.

ALBERTO SURIO

DEIA

Debateko gaiak

Joan zen igandean Katalunian egin ziren hauteskunde emaitzek,



SUD OUEST

bide geldoko autonomien karabanan sartzeari uko egiten dioten bi talde nazionalistak indartu egin dituzte. CIUren graipen nabarmenak eta independentziaren aldekoen

gorakadak Esquerra Republicana de Catalunyaaren leherketarekin Felipe Gonzalez eta horren Gobernu gogoetara bultzatu behar ditu.

EDITORIALA

UZENDARIARI

Ministroak esan duenagatik dimititu egin beharko luke

Tomas de la Quadra Salcedo, Justizia Ministroak egindako deklarazioak guztiz lotsagarriak dira. Ministro batek horrelako deklarazio iraingarriak egitea onartezina deritzogu, eta dimititu egin beharko luke.

Espainiako gobernuaren partiduak, herri mugimenduak kriminalizatzeko erabiltzen duen bidea arras ezaguna dugu. Sistema honek ezartzen dizkigun moldeak zalantzan jartzekotan, terrorismoarekin parekatzeekin nahiko dute, inolako jaramonik ez egiteko eta aldi berean mugimendu hau kriminalizatzeko, baina kasu honetan iraingarria ez ezik farregaria ere ateratzen da gonbaraketa...

Nola esan dezake ministroak. Espainia eskubideen estatua dela, legeak gure eskubideak zapaltzen dituen bitartean? Nola, gure kontzientziaren mezua jarraitzeagatik, narkotrafikariek bezain zigor gogorra jasan dezakegun bitartean?

Nola aipa ditzake ministroak haurren hilketak, intsumisioen jarreraren kontrako argudio gisa eta aldi berean militarren eta armaden papera defendatu? Ez al dakigu denok zein den

armada guzien helburua? Zeintzuk, ejerzitoak ez badira, hiltzen dituzte milaka haur, emakume eta gizon? Ministroaren ustetan honelako epaiak delitu egitera bultzaten dute, zigorraren beldurra kenduz, baina gure ustez, intsumisioen jokoera ez da inolaz ere jokoera kriminala, eta delitua baldin bada, ez da intsumisioen errua baizik eta gure eskubideak errespetatzen ez duen lege batena.

Gure kontzientziaren kontra jotzera beharzen gaituen lege bat, gizartearen gehiengoaren sentimenduaren aurka doan lege bat, ez dugu bete behar, guztiz kontrakoa, legedi horrekin bukatzearen alde borrokatu behar dugu. Okerrik baldin badago auzi horretan, ez dago intsumisioen jarreraren, legean baizik.

GIPUZKOAKO KOORDINADORA ANTIMILITARISTA KAKITZAT

Interes falta

Gutun honen bidez, HAAE (IVAP) eta HABEren aldetik jasan dugun tratua salatu nahi dugu.

Osakidetzeko talde bat gara eta azaroaren hasieran, Osakidetzeta eta HAAEK berak iritsitako akordio baten ondorioz, Erreterriako udal eskualtegiaren *alfabetatze* mailan ikasteko aukera izan genuen.

GAIA JARRITA




Asier

Doimua: Albisturtikan Bidaniaino

Sarri bezala gazteen bila zuhur hainbat ertzain pare oraingoan zu egin zaituzte euren zoritzarren jabe zelaitik kanpo ere eduki bertan hainbat abildade izan indartsu eta bilatu nahi hainbeste libertade ahal baldin bada arbitroaren eskutian jausi gabe sarri egiten bait dute lana kanpoko taldeen alde.

IGOR ELORZA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZUEN ETXEZAHARRETA, INAKI URUA

Sustapena: NERIA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iruñea Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñiti dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Gulerpiera kaina. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11